

Herririk Herri | 6

Berriozabalen kasua azertu dute Herrirak eta Elorrioko Udalak

Berbaz | 9

Zero Pobrezia kanpainarekin bat egin dute sei elkartetek Durangon

Kirola | 15

Bidezabalek gizonen taldearen soldatak kentzea erabaki du

Ordu aldaketa

Zapatutik domekara,
03:00etan 02:00ak
izango dira.



DURANGO | 5

Birsaltzaileak azokatik kanpora



Baserritarren azoka arautzeko ordenantza onartu du udalak. Saldu ahalko dituzten ortuari bakarrak norberak produzitutakoak izango dira.

Kepa Aginako

Durangaldea | 2

Durango bizilagun bat
Lehendakari: Iñigo Urkullu

Zaldibar | 5

Euskararen erabilerari buruzko
datuak azalduko ditu udalak

Atxondo | 8

Igerilekuko tasa baino ez da
igoko 2013ko ordenantzan

Otxandio | 2

Berdintasun Plana osatzeko
herriko andrekin batuko dira

DURANGALDEA | 3

Txema Serranok irabazi du Anbotoren argazki lehiaketa

Argazkizale durangarrak Otxandioko bonbardaketa irudikatzen duen horma irudiaren argazkiagaz irabazi du 500 euroko saria.



A. Urreta podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Alnara Urreta Jainaga
PODOLOGOIA 188. Elkarlagokidea

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak
@anboto

OTXANDIO

Berdintasun planari ekarpenak egiteko bilerak deitu dituzte

Bost batzarretako bakoitzera adin edo errealitate jakin bateko emakumeak gonbidatuko dituzte

Urtea amaitu aurretik lehenengo Berdintasun Plana diseinatuko du udalak, 2013an zehar martxan ipintzeko asmoz. Orain hiru urte egin-dako diagnostikoa osatu eta aberasteko datozen asteetan bost batzar egingo dituzte herriko emakumeekin.

Eguazten arratsaldean bolalekuko aretoan batzarra egin zuten, eta berdintasun planaren gaineko xehetasunak azaldu zituzten, baita datozen asteetako bost batzarren bidez abiatuko duten prozesu parte-hartzaileari buruzko azalpenak eman ere.

Batzarretako bakoitzera adin edo errealitate jakin bateko emakumeak daude deituta, euren ikus-

Datorren astehenean izango da lehenengo batzarra bolalekuan

puntua eta beharrianak jasotzeko. Bostetik hiru batzar adin tarteen arabera antolatuko dituzte: 15-24 urte artekoak, 25-60 artekoak eta handik gorakoak. Beste batzar biak etorkinei eta gurasoak diren emakumeei zuzenduta daude. Datorren astehenean izango da lehenengo batzarra bolalekuan. ■ J.D.

Batzarrak

- Urriak 29, 18:30, bolalekuan: 60 urtetik gorako emakumeak
- Urriak 31, 10:00, Andresa Landan: Emakume etorkinak.
- Azaroak 5, 18:30, Andresa Landan: 25 eta 60 urte arteko emakumeak
- Azaroak 7, 18:30, Andresa Landan: Guraso diren emakumeak
- Azaroak 9, 19:00, Gaztetxean: 15 eta 24 urte arteko emakumeak

ABADIÑO

Gazteak jarrera sexisten kontra kontzientziatu gura dituzte

Gazteen artean berdintasuna eta errespetua bultzatzea eta neska-mutilen arteko harremanetan indarkeria sexista saihestea. Helburu horiek ditu herriko institutuaren egingo duten ekimenek: maitasun erromantikoaren mitoa zalantzan ipini, sexismoak musikan daukan eragina aztertu eta genero rolerik harreman sexuala jokatzen duten paperaz hausnartuko dute, besteak beste.

Indarkeria sexistaren kontrako graffiti bat margotuko dute, Javier Villarren laguntzagaz

Azaroaren 25era arte burutuko dituzte saioak (Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna da). Eskulanak, antzezlanak edo bideo lanak sortuko dituzte herriko gazteek. Gainera, indarkeria sexistaren kontrako graffiti bat margotuko dute, Javier Villarren laguntzagaz. ■ I.E.

MALLABIA

Kontzertuz betetako asteburua Urriko jaietan

Amaitu Araiztegi paleta jokalarik mallabiarrak botako du gaur Urriko jaietako hasiera emango dien txupinazoa. Bertso poteoaren ostean, oilasko pintxoak banatuko dituzte 1,50 euroren truke.

Asteburuko egitarauan musikak pisu handia hartu du. Kontzertu gau bi antolatuko dituzte jaietarako. Gaur, 22:30ean, Damudot eta Bostenbor taldeek eskainiko dute zuzenekoak. Bihar, 22:00etan, berriz, Kokein, Iheskide, Governors, Vendetta eta Bizardunak taldeen txanda izango da.

Domeka aizkolarien eguna izango da. Javier Garitaonandia Aitxu eta Jesus Gisasola Zelai ariko dira enborrak ebakitzen. Umeek Ibon magoagaz dute arratsaldean hitzordua. ■ J.G.

Gaur, 22:30ean, Damudot eta Bostenbor taldeek eskainiko dute zuzenekoak

DURANGALDEA

Durangotik Jaurlaritzara

Alderdi politikoekin batzartuta lehendakaritzarako bideari ekin dio Urkulluk



Iñigo Urkulluk bere emazteagaz Durangon eman zuen botoa joan zen domekan. Argazki-press

Lehendakaritzara bidean, Iñigo Urkulluk Mariano Raxoi, Alfredo Perez Rubalcaba eta Artur Masekin berba egin du asteon. Legebiltzarrean ordezkari izan da berbetan. Datozen egunetan, alderdiren batekin ituna sinatu edo unean uneko akordioetara heltzea erabaki beharko du. Bere lehendakari kargua hartzen duenean, krisi ekonomikoa, bake eta normalizazioa eta nazio egituraketa kudeatu beharko ditu.

EH Bildutik Durangaldeko beste hautagai bik eserlekua lor-

tu dute Legebiltzarrean: Dani Maeztuk eta Julen Arzuagak.

EAEn bezala, EAJ izan da Durangaldeko alderdirik bozkatuena, 11.597 botorekin. Hala ere, 2009ko hauteskundeetan baino 722 boto gutxiago jaso ditu. EH Bildu izan da bigarren indarra (10.710 boto). PSE-EE nabarmen jaitsi da Durangaldean: 2009an 6.887 jaso zituen eta oraingoan 4.446, heren bat gutxiago. PPK 477 boto galdu ditu aurrekoekin alderatuta.

Egungo eskualdeko udaletako indar banaketa kontuan hartuta, Abadiño eta Mañariko datue-

tan gertatu da aldaketa. Mañarion, Bildu gobernua egonda, EAJ izan da bozkatuena. Abadiñon, berriz, EH Bildu.

Boto kopuruari dagokionez, EAEn emaitzak Durangaldeko datuen isla dira. EAEn EAJk 27 eserleku izango ditu botoen %34,64 baino gehiagorik (383.565 boto). EH Bilduk 21 izango ditu (%25,00; 276.989 boto), PSE-EEK 16 (%19,13; 211.939 boto), PPK 10 (%11,73; 129.907 boto) eta UPyDk 1 (%1,94; 21.472 boto). EAJk Araban eta Bizkaian irabazi du; EH Bilduk Gipuzkoan. ■ J.Guenetxea

Mario Zubiaga

Boto Jesuita

Itxi da eskubide politikoen murrizketan eraikitako euskal ordezkari mugatuaren garaia. Berriz ere, lau hanka ditu euskal sistema politikoa erkidego honetan. Alabaina, mahaiaren metafora hankamotz gelditu da urriaren 21ean. Apurka, hauteskunde hauteskunde, herri burujabe eta garatu ia guztietan bezala, bi zutabe nagusietan oinarritzen ari da euskal alderdi sistema, oraingo hiru probintzietan. Espainiar identitate politikoa duten alderdiak ez dira desagertu, noski, baina abagune historiko honetan hautesleriaren gehiengoak argi erakutsi du zein den kritikik ateratzeko lidergo maitatuena: ezker abertzalearen burdinazko ukabila, zetazko eskularru jeltzalea jantzita. Eta alderdi nagusi biko eredu hau ziklo berriaren egiturazko ezauzgarria bilakatu delakoan nago.

Zentraltasunaren lehia zabaldu zen hauteskunde kanpian. Lauso, erpinik gabea, aspergarria izan da, baina ez inozoa. *Catch-all party* edo alderdi oro-harrapatzaileen jarrera hartuta, EAJk eta EH Bilduk, biek ala biek, hautesleria ahalik eta zabalena ordezkatzeko saiatu dira. Dema horretan garaile izan da alderdi jeltzalea. Geneetan du erdilari postuaren jitea eta EH Bilduk ez daki oraindik, koalizioaren letra txikia zehaztu arte, atzelari 'amarrategia' den edo abangoardian jokatzen duen aurrelari bihurria. Esfortzu txikia egin behar izan du EAJren aurpegi teknokratikoenak bere nortasun historikoa hautesleriari gogorazteko: "Ongizatearen nazionalismora" itzultzeko promesa zeraman jeltzaleen egitarauak, krisi garaian galdutako iragan gozoaren oroimenak ematen duen etorkizunerako itzaropena. Horrela, jeltzaleek beraienak ziren eta ez zirenak jaso zituzte, PPTik, PSEtik eta baita EH Bildutik ere, Gipuzkoan batez ere. Koalizio gazteek hori dute, indar metaketarako atezabal-zabal irekita, biltzen diren indarrek, antzeko erraztasunarekin egin

dezaketela alde. Erakunde kudeaketan populismoan erortzen ez bada, batez ere.

Ondorio bi ditu EAJren garaipenak: lehena, abertzalearen positio hegemonikoa hartu duela EAEn, normalizazio politikoa iragoriz eta erabakitze eskubidearen inguruan ahots sendo eta bateratua erakusteko modukoa, hala nahi izanez gero. Eta, bigarrenik, gai horietan eman daitekeen edozein aurrerapauso, askok nahi edo uste baino geldoago emango dela, nahi edo uste baino adostuagoa izango dela. Krisi ekonomikoak izango du lehen-tasuna, eta, tamalez, baita honen kudeaketa 'arruntak' ere, murrizketak barne.

Izan ere, Loiolako Inaziok erakutsi bezala, atsekabe garaian aldaketa sakonik ez egitea erabaki du hautesleriaren gehiengoak. Horregatik, Mas-i Katalunian gertatu bezala, basa-zaldi bizia beharko dute jeltzaleek aulki azpian, aldaketa politikoa eta ekonomiko sakona gauzatu behar bada. Ez bihar edo etzi, baina ezta ere hango eta hemengo jesuita batzuk nahiko luketen epean, hots, *ad calendas graecas*.

Txema Serranok irabazi du Anbotoko argazki lehiaketa

38 urteko durangarrak Otxandion ateratako argazki bategaz irabazi du 500 euroko saria

Otxandioko bonbardaketa irudikatzen duen muralari ateratako argazkia agertuko da aurten Anbotoko egutegiaren azalean. Txema Serrano durangarrak iluntzean Otxandion ateratako argazkia izan da epaimahaiari gehien gustatu zaiona. Serranok 500 euroko saria jaso du Anbotoren Iurretako egoitzan. Argazkilaritza zaletasuna da Serranorentzat. Lehiaketa honetara Durangaldeko hamabi herrietako argazkiak aurkeztea erronka izan dela esan du. "Argazkiokateratzen

Serrano: "Argazkiok ateratzen Durangaldeko hainbat txoko deskubritu ditut"

Egutegia azokarako prest egongo da, eta ohiko lekuetan jarriko dute salgai

Durangaldeko hainbat txoko deskubritu ditut", adierazi du irabazleak.

Azalean saria irabazi duen argazkia eroango du egutegiak, baina barrurako, gainerako parte-hartzaileen lanak aukeratu ditu epaimahaiak. Erabaki hori hartzeko Zalora Fuertes Anbotoko argazkilaria, Unai Iturriaga diseinatzaile eta bertsolaria eta Lehior Elorriaga Berbaroko zuzendaria bildu ziren joan zen astean.

Parte-hartzea, gorantz
Anbotok bere egutegia osatzeko bigarren antolatutako argazki lehiaketa. Iaz sei lagunek parte hartu zuten. Aurten berriz hamahiru lagunek aurkeztu dira. "Oso pozik gaude argazki lehiaketak izan duen harreragaz. Aurten parte-hartze handia izan dugu eta argazkien kalitatea ere oso altua izan da", adierazi du Jone Guenetxea Anboto astekariko zuzendaria. Egutegia Durangoko azokarako prest egongo da, eta ohiko lekuetan jarriko dute salgai. ■ J. D.



Goian, Serrano eta Guenetxea; behean argazki irabazlea.

DURANGO

"Parte-hartzeak aurreikuspen guztiak gainditu ditu"

Kurutziaga kalean lehenengoz egon dira txosnak eta batzordeak leku aproposa dela baieztatu du



Txosna batzordeko kideak, Kurutziagan, eguaztenean.

Txosna batzordeko kideek jaien osteko balorazioa egin zuten eguaztenean, prentsaurrekoan. Txosnaguneko jaien ereduak emaitza onak eman dituela eta bai orok agertu ziren. "Parte-hartzeak aurreikuspen guztiak gainditu ditu". Paella txapelketan 600 lagun batzea edota Gazte Egunean 400 gazte elkarteak ipini dituzte adibide. Kurutziaga kalean lehenengoz egon dira txosnak, eta leku aproposa dela baieztatu dute. "Alde zaharretik hurrean dago eta jendea ekitaldietara hurreratzea erraztu du". Azaldu dutenez, auzokideekin berba egin dute zarata eta zikinkeria lako eraginak ahalik eta txikiak izaten saiatzeko. "Txosna batzordeak barkamena eskatu nahi dio gure jardunagatik trabak izan dituen herritar orori. Baita eskerrak eman ere laguntzen ibili diren guztiei".

Udalak ere balantzea egin du eta prentsa ohar bidez helarazi du. "Aurtengo jaiak normal xamar igarotako dira, eguraldiak asko lagundu ez duen arren". Su Ta Gar taldearen kontzertua izan zen jendetsuena: 2.100 lagun batu ziren. Gertaeren atalean, 45 salaketa egon dira lapurretatik. ■ M. O.

Oinezkoak kontuan hartu dituzte terrazen arautegi berrian

Tabakoaren legea dela eta, ugaritu egin dira tabernaz kanpoko mahaiak, baita upel estiloko altzariak ere. Azken urteotako garapena eta ostalarien eskaerak ikusita, udalak terrazak ipintzeko ordenantza berria aho batez onartu du.

+Dendak elkartearen ekarpena jaso du arautegiak.

Gainera, oinezkoak ere kontuan hartu dituzte. Terrazen eta hormen artean espazioa utzi beharko dute beti, oinezkoen pasabideak ez desagertzeko. Kalearen arabera espazioa handituko da, baina metro bi edukiko dituzte gutxienez. Udalak hainbat baldintza tekniko ipini ditu, eta zonaldeka irizpide estetikoak bateratzea proposatu du. Bero-gailuak eta estalpe finkoak ezarritzea ere posible izango da. ■ M.O.

Berbaldiak eratzen hasi da Bizidun nagusien elkarteak

Durangaldeko Esperientzia Institutuan ibilitako nagusi batzuek Bizidun elkarteak sortu zuten maiztasunarekin. Amankomunazgoko institutu berezi hori amaitu eta ikasten jarraitzeko asmoz batu ziren. Bada, hasi dira ekintzak egin eta

hurrengo deialdien berri eman dute. Datorren eguaztenean, Euskal Herriko industriaren historiari berba egingo du Inigo Agirre Deustuko unibertsitateko katedradun ohiak. 17:00etan izango da, Behar-gintzaren egoitzan. Azaroaren 7an, 16:30ean, gai beragaz jarraituko du Agirrek. Azaroaren 28an astronomia izango da gaia, Esteban Esteban adituaren eskutik.

Ikasturtean zehar hainbat ekintza egingo dituzte, eta institutuak jende gehiago batzea espero dute elkarteak. ■ M.O.



UDA GOIENENKO OSTERA

ERRIMAK OINETAN

HAATIK DANTZA KONPAINIA



ELORRIO, ARRIOLA ANTZOKIA

Azaroaren 2an, barikua, 22:00etan
Sarrera: 8 €

Antolatzailea:


Batasunak:




Laguntzaileak:





12.000 BAIETZ!



EGIN HARPIDEDUN!

ANBOTO ETXERA EROANGO DIZUGU ETA ZU ASTEBURU PASA



Esti Gerrikabeitia (Durango)



Izaskun Iturriagaetxebarria (Elorrio)

EROSKI BIDAIEK eskainitako asteburu pasak irabazi dituzte Jasonek eta Gaizkak, Anbotoren harpidedun egin direlako. Asturias edo Kantabriara joango dira.



2012ko harpidedun berrien artean ere EROSKI BIDAIEK emandako 6 asteburu-pasa zotz egingo ditugu, eta Anbotoko harpidedun guztien artean aste bateko egonaldia Kanariar irletan.

HARPIDEDUN EGITEKO **3** AUKERA DITUZU:

1 anboto@anboto.org helbidera idatzi.

2 946816558 telefonora deitu.

3 Kupoia bete eta bidali Anbotora.

ANBOTO ASTEKARIA - Bixente Kapanaga 9 - 48215 IURRETA



Izena Abizenak

Telefonoa E-posta

Helbidea..... Herria.....



DURANGO

Birsalmentari atea itxi diote udalaren arautegi berriagaz

Baserritarren zapatueta merkaturatu, norberak ekoiztako produktuak bakarrik saldu ahal dira

Datorren urtetik aurrera nekazal produktuen birsalmenta debekatu dute zapatueta baserritarren merkaturatu. Horrela dio udalak behin betiko onartutako ordenantzak. *Baserritik plazara* ekimenaren harira batutako hainbat nekazariaren kexak eragin zuen udala arautegi berria idazten hasia. Baserritarrek egiten zuten eskaera nagusietako bat birsaltzearen kontrakoa zen. Hau da, bertan saltzen dena norberak ekoiztutakoa izatea baldintza legez gura zuten. Arau berriaren arabera, birsalmentaren debekua kontrolatzeko, udalak eskubidea edukiko du informazioa jaso eta ustiatzeko.

Bestalde, merkatuak funtzionamendu egokia izan dezan, uda-

lak eskala-planoa egingo du. Bertan zehaztuko du postu guztien banaketa. Antolaketa zehaztea ere bazen baserritarren eskaera indartsu bat. Goizeko 06:00etatik 08:00etara muntatu dituzte postuak, eta salmenta tartea 08:30etik 13:30era izango da. Amaitzean, ordu erdi edukiko dute guztia jasotzeko. Posturako baimena bakarra eta pertsonala izango da.

Zuzendaritza sortuta

Merkatuko batzordea ere eratuko dute zuzendaritza kargutzeko. Udalaren, Urkiola Landa Garapeneren, +Dendak elkartearen eta saltzaileen ordezkariak osatuko dute. Produktuen merkaturatzea hobetzeko eta mesede egiteko jarduerak bultzatzea izango da arduretako bat. ■ M. Onaindia



Zapatu goizetan ipintzen dute baserritarren azoka, Merkatu plazan. Kepa Aginako

“Arautegian, aplikazioa da garrantzitsua”

Ordenantzaren eskatzaileetako bat izan da Urdaspal Alberdi baserritarra. Dioenez, euren eskaera eta kexa inportanteenak jasotzen ditu: lekuarena eta birsaltzearena. “Gaur egungo utzi-

keriaren aurrean, aurrerapausu bat da”. Bere ustez, arautegia martxan jartzea da eman behar den lehenengo urratsa. “Ikusiko duguzelan aplikatzen den eta esaten diren gauzak betetzen diren”.

Salgaiak, norberaren produktuak izateaz gainera, sasoiari sasoiko izan beharko dutela azpimarratu du.

Alberdik ez du uste arautegia bere horretan nekazariaren bultzatzaile denik: “Arautegia martxan jarri eta ganoraz egiten bada, plazara jendea hurreratzeko beste ekimen batzuk ere egin beharko dira”. ■ M.O.

BERRIZ

Zaintzaileei bizkarra zelan zaindu azalduko diete ikastaroan

Menpekotasuna duten pertsonen zaintzaileek sarri izaten dituzte bizkarreko arazo eta lesioak. Datorren eguaztenean, urriak 31, ikastaroa hasiko dute kultur etxean, bizkarra zaintzeko eta lesioen prebentzioarako teoria eta ariketa praktikoa ikasteko. Bizkarra erlaxatzeko teknikak eta postura egokien gakoak ikasiko dituzte, besteak beste.

Arratsaldeko 16:00etan hasiko dute ikastaroa. Ordu eta erdi-ko sei saio izango dira. Informazioa eskatu eta izena emateko gizarte zerbitzuetara deitu behar da: 94 682 40 36 edo 635 70 40 88 zenbakietara. ■ A.U.

Semaforoak kenduta, Olakuetako biribilgunea ia amaituta dago



N-634ko Berrizko zatian trafikoa arintzeko lanak aurrera doaz. Planifikatutako lau biribilgunetatik bi amaituta daude. Besteei dagokienez, Olakuetan semaforoak eta biribilgunea erdia kendu dute, eta Zaldibar eta Elorriorako bidegurutzean egongo den biribilgunea ikus daiteke. Eitua bidean dagoen bihurtzean ere aurrera doaz lanak. Aldundiaren iturrien arabera, zonaldeko istripu gehienak bihurtze horretan izaten dira. Lanak amaitzeko epea apirilera dago aurreikusita.

ZALDIBAR

Euskararen erabileraren datuak azalduko dituzte

Soziolinguistika Klusterrak buruturiko ikerketaren emaitzen berri emango dute urriaren 30ean

Zenbatekoa da euskararen erabilerakalean entzuten ditugun elkarrizketetan? Elkarrizketetan hurren presentziak eragiten al du euskararen erabileran? Horiek bezalako galderak erantzun dituzte, Zaldibarko udaletxeke pleno aretoan, urriaren 30ean egingo duten batzarrean.

Soziolinguistika Klusterrak 2011n Zaldibarko Udalaren enkar-

Euskararen errealitatea adierazteko funtsezko datuak batu zituzten iaz

guz buruturiko ikerketa hartuko dute datorren martitzeneko batzar horretan oinarritzat.

Euskararen egoera ona edo txarra den, hobera edo okerrera doan, datu objektiboak begiratu-ta jakin gura du Zaldibarko Udalak. Horregatik, euskararen errealitatea jakiteko funtsezkoak diren datuak batu zituzten iaz.

Bestalde, euskararen normalizazioan datozen urteetan egin beharreko lana finkatzeko ekarpenak egin dituzte irail eta urriko batzarretan herritarrek. Euskara Biziberritzeko Plan berria diseinatuko dute. ■ I.E.

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Hurrengo oraikuntza

DURANGO

IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com

Elorrion ere aukera onak

ELORRIO

Berriozabalen kasuaren harira batzartu dira udala eta Herrira

Gaixotasunak dauzkaten presoengain inguruko informea aurkeztu du Herririk



Udalaren eta Herrira taldearen ordezkariak, batzartu aurretik.

San Agustin auzoko jolasgunea berrituko dute

San Agustin auzoan dagoen jolasgunea berrituko du udalak. Dorredun txirrista bat, bi lagunentzako kulunka eta disko hegalarri bat jarriko dituzte. Horrez gainera, helduentzako makina bio-osasungarriak ere jarriko dituzte.

Lanak hasita daude, azaldu dute-nez. Ana Otadui alkateak esan du jolasteko leku egokia dela. "Bertako zabuak oso zaharkituta zuden. Aldatzeko ordua zela ikusi genuen, txikientzat leku erakarriagoa izan dadin".

Helduentzako makinek besoak, sorbalda eta abdominallak lantzeko balioko dute. Aldatsekuan ere ipini berri dituzte antzeko tresnak, baina Otadui azaldu du San Agustinen instalatuko direnekin ariketa biziagoak egin ahalko direla. ■ A.B. / M.O.

Herritarren partaidetzagaz osatzen ari dira kirol plana

Bost taldetan banatuta, herriko kirol eskaintza eta dauden azpiegiturak aztertzen hasi dira

Elorrioko Udala datozen urteetarako kirol plan estrategikoa garatzen dabil. Hausnarketa fasea zabaldu du, eta herritarren nahiz kirol elkarten ekarpenak jasotzen hasi da. Bost taldetan bana-

tuta, herriko kirol eskaintza eta horretarako dauden azpiegiturak aztertzen ari dira egunotan. Batzar hauetatik iritien diren emaitzekin, udalak datozen urteetarako politikak definituko ditu.

kariei, eta kezka helarazi. Alkateak udalak onartutako mozioa eman zien, eta bertan hartutako konpromisoak betetzeko asmoa agertu zuela esan dute Herrirako kideek.

Bi konpromiso nagusi hartu zituen udalak mozioagaz. Batetik, Berriozabalen osasun-egoeraren jarraipena egitea. Horretarako, beragaz zuzeneko hartu-eman sortzea onartu zuten, behar izanez gero bisitatzea joanda. Bestetik, hainbat instituziori legea betetzeko exijitu die eta mozioari atxikimendua emateko eskatu. Mozioa bidali die eta Iñigo Lamarca izan da lehena erantzuten: Arartekoak mozioak esandakoa babes-tu du.

Herririk adierazi du bilera honetatik aurrera ere alkateekin harremanetan jarraituko dutela. Lehenengo erronda amaitzean, alkate guztiarekin ekimen bateratuak egin ahalko diren aztertuko dute. ■ Markel Onaindia

Udalak prentsa ohar bidez azaldu duenez, irakasle, teknikari eta hezitzaileak ordezkatuta daude batzarretan. Kirol taldeei dagokienez, hauek aipatu ditu: Berrio-Otxoa Pilota Eskola Taldea, Zaldi Batza Elorrioko Xake Taldea, Elorrioko Rugby Taldea, EKT, Elorrioko Buskantza Futbol KE, Elorrioko CD, Elorrioko Txirriindularitza Elkarte eta Erdella Mendi Taldea. Herriko jubilatuen elkar-te bi ere badabilta parte hartzen: Berrio-Otxoa eta La Esperanza elkarteak. ■ M.O.

IZURTZA

Hamabost herritarri konposta zelan egiten den irakatsi diete

Konpostagailu bat muntatzen eta konpostaren prozesuaren etapak bereizten ikasi dute

Azterlan ikerketa zentroko adituek konpostaren gaineko ikastaroa eman zieten eguazten arratsaldean udaletxera hurreratu ziren hamabost izurtzarrei. Aldundiko diru laguntza baten bidez, udalak

erosi dituen konpostagailuak datozen egunetan banatuko dituzte herritarren artean eta ekimenari hasiera emango diote.

Azterlaneko Ander Areitioaurtenak, lehenengo, konpostagailu

bat muntatu zuen, azalpenak ematen zituen bitartean. Herritar bakoitzak birziklatutako plastikoz egindako konpostagailu bi jasoko dituela esan zuen; bata bestearen gainean muntatzen dira eta bien artean 300 litroko edukiera dute. Gura duenak, Internet bidez ere erosi dezake konpostagailua: www.compostadores.com.

Ostean, konpostaren prozesuko etapak azaldu zituen eta hondakinetatik ongarria lortzeko materiale egokiak zeintzuk ziren azaldu zuen. Esaterako zuhaitzetako adarrak konpostagailuan txiki-txiki eginda sartzeari komeni dela kontatu zuen; horretarako, Mañariak eta Izurtzak makina birringailu bat konpartituko dute eta gura duenak eskatu ahalko du.

Berotasuna eta hezetasuna

Konposta egiterakoan kontuan hartu behar diren faktore bi berotasuna eta hezetasuna direla azaldu zuen Areitioaurtenak. Konpostagailuan zenbat eta bero gehiago, hobe. 40 gradutik gora konpost prozesua asko azkartzen duten bakteriak hasten dira lanean.

Ikastarora hurreratu ziren denei etxean konposta egiteko gida bana banatu zieten eta edozein duda argitzeko kontaktua utzi zuten: 94 621 54 70. Era berean, hilabete bi barru etxetik joango direla adierazi zuten, prozesuari jarraipena egiteko. ■ J.D.



Ikastaroko une bat, eguazten arratsaldean, udaletxean.

MAÑARIA

Aurrekontuak lantzeko batzarrak hasiko dituzte

Mañariko Udalak herritarren ekarpenagaz osatu gura ditu 2013rako aurrekontuak. Hain zuzen, inbertsioen atal bat gorde du proiektuak iritzi horien arabera zehazteko. Gaur eta bihar egingo dituzte lehenengo batzarrak, udaletxeko aretoan. Gaurkoa 19:00etan izango da, eta biharkoa 12:00etan. Herritarrei prozesuaren nondik norakoak azalduko dizkiete, eta proposamenak batzeko lehenengo aukera ere izango da.

Gaur eta bihar egingo dituzte lehenengo batzarrak, udaletxeko aretoan

Endika Jaio alkateak esan duenez, informazioa banatu dute etxerik etxe. Ekarpent egiteko fitxa bat ere eskaini dute. Herritarrek fitxa horren bidez aurkeztu beharko dituzte ideiak, azaroaren 5a baino lehen. Herritarrek, ordezkariak eta teknikariak osatutako talde batek aztertuko ditu gero ideia horiek. ■ M.O.

IURRETA

Bio-dantza eta pelbisa lantzeko ikastaroak emango dituzte

Anderebide emakume elkarteak eraturata, zoru pelbikoa idartzeko eta bio-dantza ikastaroak hasiko dira azaroaren 5ean eta 9an, hurrenez hurren. Goiuria kultur gunean izango dira biak eta urriaren 31ra artea dago izena emateko aukera.

Biak ala biak hirugarrenez antolatu dituzte. "Ikasitako praktikak jarraitzea da garrantzitsua eta interesgarria", diote antolatzaileek. "Zoru pelbikoa idartzeko ikastaroan hamabi lagun batu ginen iaz, eta, udaberri honetan beste hamasei". Amatzaba Abasolo fisioterapeutak zuzenduko du: astelehenetan, hamabostean behin, 18:30etik 19:30era. Dagoeneko zortzi lagunek eman dute izena.

Bio-dantzak ere harrera ona du: "Iaz proba lez hasi ginen eta kostatu arren, taldea osatu genuen". Ana Jodarrek gidatuko du. ■ A. B.

Goiuria kultur gunean izango dira eta 31ra arte dago izena emateko aukera

DURANGO

ERROTARITXUENA

Arriskurik gabeko aukera bat

Denbora ziurtatzen ari da

Egiazta ezazu!



%100 - raino finantzaketa

- Baldintzarik onenetan
- Idatziz bermatua

Sabadell Guipuzcoano



2 log. 204.000€-tik aurrera + BEZ

3 log. 268.000€-tik aurrera + BEZ



www.sukia.com
www.solvía.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

Durangaldean labor

Hezkuntza berriztapenen 1. saria jaso dute Maristek

Irakasteko prozesuetan informazio eta komunikazio teknologien integrazioa bultzatzeagatik saritu dute Maristak ikastetxea. Telefonica Fundazioa-Hezkuntza Berriztapena Sarian, lehenengo saria jaso du. Saritutako egitasmoan gailu eroangarriek eta euron filosofiak hezkuntzan eskaintzen dituzten aukerak aztertu dituzte. Sariotara 25 herrialdeetako 1.700 egitasmotik gora aurkeztu dira.

Umeen Euskal Jaian 450 dantzari batuko dira, etzi

Durangoko Umeen Euskal Jaia antolatu dute Tronperri eta Txoritxu Alai dantza taldeek domekarako. Eskualdeko talde gehienek eta kanpotik etorritako batzuek ere parte hartuko dute; guztira, 450 ume eta gazte inguruk. Goizeko 12:00etan kalejira egingo dute Durangoko kaleetatik, eta arratsaldeko 17:00etan alardea egingo dute Ezkurdin. Euria bada, azokan.



Pezeten kanpainagaz jarraituko dute

+Dendak elkarteak pezetak eurotara aldatzeko kanpainagaz jarraituko du. Trukea egiteko elkartearen egoitzara jo behar da, Plateruen plazara, eta bertan txartel bat ematen dute, elkarte-kide diren establezimentuetan erabilizko. Orain arte txartel horiekin 3.000 euro erabili dituzte erosketetarako.

ATXONDO

Askotariko kulturen topagune bihurtuko da Apata zapatuan

Kulturarteko II. Jaialdian ekitaldi sorta antolatu dute udaletxe ondoko plazan

Zapatuan Kulturarteko II. Jaialdia ospatuko dute Apatan. Herrian batzen diren askotariko kulturen erakusle izan gura du ekimenak eta, iaz legez, hainbat ekitaldi antolatu dituzte horretarako.

Goizetikeguerdira artisautza eta janari postuak ipiniko dituzte Euskalerrria kalean. Janari postuei dagokionez, Euskal Herriko eta nazioarteko platerak dastatzeko aukera egongo da: Maroko, Senegal, Alemania eta Espainia (Extremadura, zehatzago). Aurtengo nobedadeetako bat izango da plaza inguruan jateko atonduko duten gunea, bertan bazkaldu gura duenarentzat.

Goizean zehar herritar guztien artean mandala bat egingo dute. Mandala oihal zabala da, pieza edo sinbolo txiki askoz osatua.

Aditu batek irudia marraztuko du eta kolore askotako pinturak eskuagarri egongo dira, denen artean mandala pintatzeko.

Goizerako gaztetxoek zuzendutako ginkana prestatu dute frontoi ondoko plazan. Ginkana horretan askotariko kulturetan oinarritutako jokoak egingo dituzte. Eguerdian, 13:30 inguruan, Senegalgo M'Lomp taldearen perkusio doinuek eta dantzek hartuko dute plaza ingurua.

Bazkalostean, udaletxe alboan atonduko karpan jarraituko dute ekimenekin. Lehenengo, Soroluzeko talde batek Portugalgo fado ezagunak abestuko ditu. Ostean, aditu batek Europako dantzen inguruko ikastaroa eskainiko du.

Bestalde, datorren astelehenan, 18:30ean, kulturarteko jaial-

diaren helburu berdinean, *Binta y la gran idea* izeneko dokumentala eskainiko dute, Apatako gaztetxean. ■ J.D.

Egitaraua

- 10:00etatik aurrera: Janari eta artisautza postuak Euskalerrria kalean.

- 11:30ean: gaztetxoentzako ginkana, plazan.

- 13:30ean: M'Lomp (Senegal), perkusio eta dantzak.

- 16:00etan: Fadoak Soroluzeko musika taldeagaz.

- 18:30ean: Europako dantzen inguruko ikastaroa.



Iaz lehenengoz antolatu zuten kulturarteko jaialdia.

OHZren arazoa 2013 urteko kobraketan konponduko dute

Etxebizitza hutsei zerga 1,2 igo eta besteei erdia itzuli gura zieten, baina Aldundiak ez du uzten

Ondasun Higiezin Zergaren (OHZ) aurtengo kobraketan egingako akatsaren ostean, dirua zelan bueltatuko duten zehaztu du udalak ordenantza fiskaletan. Iaz udalak 0,70etik 1,2ra igo zuen zerga. Baten bat bizi den etxebizitzet

igoeraren erdia itzuli gura zieten deskontu bidez, baina Aldundiko arauak ez dute bide hori onartzen. Arazoa konpondu guran, aurtengo eta datorren urteko igoera osoa bertan behera uztea erabaki du udalak eta kobratutako gehigarri

osoa datorren urteko fakturan deskontatuko diete guztiei.

2013ko ordenantza fiskalak astelehenero udalbatzarrean onartu zituzten. Gobernu Taldearen (Bildu) aldeko botoekin onartu ziren ordenantza berriak. EAJk kontra bozkatu zuen. "Edukiagaz ados gaude, baina formekin ez", adierazi zuten.

Bestalde, igerilekuko sarrearen prezioan eragiten duen tasa da aurtengo igoera bakarra. KPIaren (Kontsumorako Prezioen Indizearen) arabera igoera aplikatuko da kasu horretan: %2,4. ■ J.D.

GARAI

Maia, Abasolo eta Paia ariko dira aurtengo bertso afarian

Jon Maia, Eneko Abasolo *Abarkas* eta Xabi Paia bertsolariak kantatuko dute azaroaren 10ean Garain. Udalak eta Trumoitte kultur elkarteak eratu dute bertso afari formatuko saioa. Azaroaren 5era

arte eman ahal da izena udaletxean, eta esan dutenez, dagoneko badago horretarako aukera. Udazkenero egiten den ekitaldia da bertso afaria.

Otea-Loran elkartearen afalduko dute bertsozale eta bertsolariak. Hogei euroan ipini dituzte salgai txartelak; ikasle eta langabetuentzako bost euroko beherapena egin dute. Gaueko 21:30ean hasiko da afaria, eta ostean ekingo diote bertsolariak kantatzeari. ■ M.O.

"BODEGUILLA"
TRAÑA-MATIENA
Tfnou. 94 681 43 85

Arrike
Liburudenda
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

Betikoak
flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak
Bixente kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

momotxo
taberna
plateruen plaza, 12 • 48200 durango
tel.: 94 681 10 06

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morellas
Alberdi Harategia

ALBERDI
prekozinatua

BERBAZ >

“Herrialde garatuetako aberastasunak beste herri batzuk pobretzetik sortu ziren”

Zero Pobrezia kanpainaren baitan, Durangoko sei elkartek dituzten lankidetzaren proiektuak erakutsi dituzte



Ezkerretik eskumara, Amaia Moreno, Raquel Calvo eta Bego Madariaga

Amaia Moreno, Raquel Calvo eta Bego Madariaga •

Moreno eta Madariaga Uzartuz elkarteko kideak dira, Calvo Bateginez GKE-koa.

kanpokoek dutela errua. Erosoa da errua botatzeko baten bat edukitzea.

Bego Madariaga: Datuak esku artean berba egingo bagenu konturatuko ginatke horrelako egoeran gugatik daudela neurri handian.

R. C.: Gainera, beldurra sartzen dabilta, eta beldurra blokeatu egiten du. Esan dezakezu: “Ez diezadaten gehiago kendu, ez naiz mugituko, ez naiz manifestatuko; herritar onak dira manifestatu barik etxean gelditzen direnak...”

Erakusketaz gainera, zer ekitaldi prestatu dituzue?

A. M.: Eguaztenean, urriaren 31n, azken ekitaldia egingo dugu Andra Mariko elizpean. 18:00etan hasita, pobreziaaren kontra egin daitezkeen ideiekin tailer bat egin eta gero testu bat irakurriko dugu eta kontzentrazio bat egin.

R.C.: Gaur, Fe y Justicia elkarteak Maristetan desazkundeari eta banku etikoari buruzko hitzaldia eskainiko du. M15 mugimenduan ere landu zuen pasa den astean banku etikoaren gaia hitzaldi batean.

Hainbat elkartek parte hartu duzue Zero Pobrezia kanpainan.

R.C.: Inurri taldeok daude, Geu Bekoak ere bai... Garrantzitsua da elkarlan hori. Zubigu-neak partaidetza tailerrean hainbat elkartek jardun dugu eta hortik antolatuta dira kanpaina hau eta Munduko Arrozak lako jaiak. Bagabiltza apurka-apurka lan taldeak sortzen. Aberasgarria da, ideiak hartu eta pilak kargatzeko. Beste batzuek zure antzeko ideiak dauzkatela ikusten duzu. ■ A.Ugalde

Herria elkarte, Uzartuz, Bateginez, M'Lomp... Durangoko elkarteak dira, eta guztiek lankidetzaren proiektuetan laguntzen dute Sahara, Peru, Guatemala eta Senegal, besteak beste. Zero Pobrezia kanpainaren baitan proiektu horien berri ematen dabilta San Agustinen atondu duten erakusketan. Eguaztenera arte egongo da kultur gunean ikusteko aukera.

Lankidetzak zelako osasuna dauka momentu honetan?

Raquel Calvo: Giroa nahiko ezkorra da. Finantziario publiko beharrezko da, murrizketa handiak daude. Dena dela, esaten dute Euskal Herrian urte bi atzetik goazela eta datorren urtean ikusiko dela kolpea. Durangon, Gizarte Ekintza sailak aurten behinztatu mantendu egin du diru laguntza. Donazio pribatuei dagokienez, azken bi hiru urtetan ere nabaritu dugu. Hainbatek deitzen dute esanaz ezin dutela gehiago lagundu, bueltatuko direla lana berriro topatzean... Hori diru aldetik,

baina parte-hartze aldetik eta jendearen gogo aldetik, ikusten da zeozer egiteko gogo dagoela, geroago eta gehiago. Elkartetatik lantzen gabiltzan filosofia da hau sistema globala dela: ez da lankidetzatik kendu behar beste leku batera eroateko, denetatik kentzen dabiltaizalako gutxi batzuei emateko, bankuei eta oso-oso aberatsak direnei. Aberatsak geroago eta aberatsagoak dira; duela gutxi irten den datu baten arabera, krisian Espainiako aberatsenen fortuna % 50 igo da.

Orain dela gutxira arte pobreziaz berba egitean, beste herrialde batzuk hartzen ziren ahotan. Orain geroago eta gehiago berba egiten da bertoko pobreziaz.

R. C.: Sistema ekonomikoa berbera da, ezin ditugu bereiztu hemengo pobrezia eta hango pobrezia. Denok gaude sistema berean, eta arrazoi antzerakoien-

gatik sortzen da pobrezia. Guk Txinan egiten den arropa erosten dugu, autoan Argentinan egindako biodiesel jartzen dugu... Hemengo pobreziaaren kontra zeozer eginda egoera konpondu egingo dela ematen du, baina ez da egia. Hemengo enpresak joango dira beste leku batzuetara han langileak merkeagoak direlako... Sistema ekonomikoa globala da.

Bertoko egoeraz arduratuta herrialde pobretuetakoa ahazteko arriskua ikusten duzue?

R. C.: Ahaztu egin zaigu, baina guk herriak arrasatu egin ditugu. Afrika osoa, kontinente bat despoplatu genuen kolonizazio garaian. Karibeko azukreagaz lortu ziren Ingalaterrak industrializazioan pausuak emateko fondoak. Herrialde garatuetako aberastasunak beste herri batzuk pobretzetik sortu ziren. Askotan produktu bakarra ustia-

“Sistema ekonomikoa berbera da, ezin ditugu bereiztu hemengo pobrezia eta hango pobrezia”

“Krisia hasi zenetik Espainiako fortuna handienak % 50 igo dira”

tzea bultzatu zen herrialdeetan, gutxi batzuren aberastasunera. Gure erakusketan hori ikusten da: Pochutan (Guatemala) kafeagaz gertatu da hori; Perun, Potosiko zilarragaz; Nikaraguan, azukre kaina eta fruituekin... Adibide horiek produktu historikoak dira; esklabutza moduak.

Hemengo desegonkortasun egoeran zelan sentsibilizatu gai horietan?

Amaia Moreno: Etorkinei botatzen zaie askotan errua; eurentzat ez dagoela hemen lanik, laguntzak kentzen dituztela... denetik entzuten da. Baina benetan euren errua da hemengo egoera? Ez. Gure artean elkar joka gabiltzan bitartean, politikoen dena maneiatzen jarraitzen dute. Futbola, xenofobia, zinea emango dizkigute, eta elkar joka jarraituko dugu. Esan digutelako

OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA



Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA
Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO
tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO
tf: 94 681 99 51



**HIRU
FISIOTERAPIA**

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO
tf. 94 466 94 00



**GOIATZ MURUA
LETURIAGA**

PODOLOGOIA
Kiroprodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO
tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO
tf: 94 681 22 00



**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILIZAZIOA**

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,
drainatze linfatikoa (masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ
tf. 94 622 55 93

ODONTOLOGIA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ
tf. 94 622 50 99

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOIA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psicologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO

tf. 94 655 00 49 / 695 784 963

@anbotokultura

KULTURA

DAMUDOT > MUSIKA



Ezkerretik lehenengoa da Jon Flores, taldekideekin batera.

“Riffak guztiz borobil ikusi arte ez dugu kanta amaitutzat ematen”

Jon Flores, Damudot taldeko gitarrajole eta ahotsa, taldeaz eta maiatzean kaleratu zuten diskoaz aritu da; Mallabiko Urriko jaietan joko dute gaur, Bostenbor taldearen lehenengo kontzertua ere izango den zuzenekoan

Zer prestatu duzue gaurko Malla-biko kontzerturako?

Disko berriko abestiak joko ditugu, eta baita 2006ko maketako kanta batzuk ere. Disko berriaren aurkezpena da egingo duguna.

Maiatzean argitaratu zenuten. Zer ideiaz egin zenuten diskoa? Heriotza da bakea dakarren bakarra dauka izenburua, eta diskoaren kontzeptu nagusia Platonen esaldi batean dago oinarrituta: “Soldadu hilek bakarrik ezagutzen dute gudaren amaiera”.

Kanta guztiak kontzeptu horren bueltakoak dira?

Bai, gizakiaren alde ilunaren inguruko ideia dago guztietan: naturatik aldendu garenez, gizakiok geure artean gara harrapari orain.

Kontatu zehatzago zeri buruz diren diskoko zenbait kanta. Utopi hutsa, Platonen Haitzuloko mitoari buruzkoa da: gure kul-

turak eta ohiturek itsututa gaude la dio, eta ez dugula errealitatea ikusten. *Zer egin genezake*, genero biolentziaren kontrako kantua da. Pertsonen kontrako minen ingurukoa da *Soldadu itsua...*

Zer eboluzio eman da urteotan Damudot taldean?

Hasi ginenean gehiago igartzen

“Konposatzerakoan, orain ez diot nire buruari horrenbeste muga ipintzen”

zen zeintzuk ziren gure eraginak: “Su Ta Gar edo Metallicaren antza dauka”, esaten zuen jendeak. Abestiek gure ukitua dute orain.

Hori zuen influentziak ere zabaldu direlako izan daiteke?

Bai, izan leike. Lehen itxiagoa nintzen konposatzerakoan, eta orain ez diot nire buruari horrenbeste

muga ipintzen. Kanta bat gure estilotik larregi aldentzen dela ikusten badut, neuretzako gordetzen dut... Dena den, sarritan, lokalean jo eta asko gustatzen zaienez, azkenean Damudot-erako hartzen dugu.

Hainbeste urtean maketa bat eta disko bat kaleratu duzue. Zer gura du esan horrek, asko lantzen duzuela kanta bakoitza?

Izan leike. Neuk egiten ditut musika eta letrak, eta gero denon artean ematen diegu forma. Egia da astiro egiten ditudala: riffak guztiz borobil ikusi arte ez dut kanta amaitutzat ematen. Mila buelta ematen dizkiot abesti bakoitzari.

Zure erritmoaren arabera da, beraz, taldearen martxa?

Bai. Diskoa 2010ean grabatu genuen Carlos Creator produktorearen estudioan, gero urtebete kanpoan egon nintzen ikasten, eta bueltan amaitu genuen diskoa: berriro sartu ginen estudioa azken ukituak emateko.

Duela hamar urte baino gehiago jaio zen Damudot. Zeu zara hasieratik taldean jarraitzen duen bakarra?

Neu eta *Poluto* bateria-jolea gaudela taldean hasieratik.

Zelan funtzionatzen duzue entseguekin?

Astero batzen gara, eta beti edukitzen dugu zerbaite berria lantzeko: riffak, bateriak eta abar.

Nahi beste kontzertu eskaintzeko aukera izan duzue?

Ez, eta uste dut egiten dugun musika estiloagatik dela. Rockeroagoa bazara errazago lortu ahal dituzu kontzertuak, baina metaleroa bazara zailagoa da. Kosta egiten zaigu kontzertuak topatzea. Hilean pare bat aldiz jo ahal izatea gustatuko litzaiguke. ■ I. Esteban

Baxujole berria fitxatu gura dute urtarrilerako



Erlantz Eizmendi *Poluto* zaldibartarra, Dani de la Torre eibartarra eta Gabriel Barranco mallabitarra dira Jon Flores abeslari eta gitarristaren Damudot taldeko kideak. Jon Floresek azaldu duenez, Gabriel Barranok taldea utziko du gabonen ostean, eta baxujole berria bilatzen hasiko dira. Inguruko taldeetako musikari ezagunei egingo diete lehenengo proposamena.

Dozena bat urtean metal doinuak sortzen jardun du Damudot taldeak. Estilo horren Euskal Herriko eszenan leku bat egiterik lortu duten galdetuta, ezetz dio Jon Flores gitarrista eta abeslariak. “Ez dugu lortu jendeak taldea ezagutzea”.

Hala ere, bere anaia Oierren laguntzagaz egin duten bideoklipak bi mila bisita eduki dituela kontatu du Floresek.

Taldeak egiten duen musika ezagutzera emateko helburuagaz, diskoa Interneten deskargatzeko aukera ipiniko dute laster. Gainera, diskoaren 500 ale atara dituzte, eta Mallabia eta Ermuko hainbat tabernatan dago salgai, bost euroan. Oso pozik daude Carlos Creator ekoizleagaz lortutako soinu kalitateagaz.

“Baina, taldea ezagutzera emateko modurik onena, Su Ta Gar moduko talde baten aurretik jotzea da”, zehaztu du. Maiatzean, Ermuan eduki zuten aukera hori: “Oso garrantzitsua izan zen kontzertu hura, jende askok ezagutu gintuelako: hori da promoziorik onena”.

Diskoaren grabazioan ere kolaboratu zuen Su Ta Gar taldeko Aitor Gorosabelek. *Heriotza da bakea dakarren bakarra* abestian kantatzen du.

“Kosta egiten zaigu kontzertuak topatzea. Hilean pare bat aldiz jotzea gura genuke”

HITZALDI-KONTZERTUA >

Saskia Roures organistaren lana bertatik bertara entzungai

Arandoño kultur elkarteak gonbidatuta dator Zaragozako organo jolea, Durangora, bihar

Duela bi urte probatu zuten hitzaldi-kontzertu formatuan emanaldia eskaintzera dator Saskia Roures organista Durangora. Zaragozan eta Vienan ikasi zuen aragoarrak, eta Salamankako goi kontserbatorioan irakaslea da gaur egun. Arandoño kultur elkarteak gonbidatu du Durangon jotzera.

Bere lanaren inguruko solasaldia antolatu dute emanaldiaren lehenengo parterako, eta kontzertu laburra eskainiko du ostean. Entzuleek organistaren atzamarren mugimendu guztiak ikusi ahal izateko, pantaila bat jarriko dute antolatzaileek Durangoko San Frantzisko monasterioan.

Parisko Notre Dame katedraleko organistaren emanaldiak itxiko du Durangoko organuaren inguruko musika zikloa, Jean-Pierre Leguay etorriko baita. Azaroaren 23an eskainiko du kontzertua Jean-Pierre Leguay musikari frantziarrak, Andra Marian. ■ I.E.



Zaragozan eta Vienan ikasi zuen Rouresek.

MUSIKA >

Lau obra estreinatuko dituzte Txistu Kontzertuan

Silboberri elkarteak antolatu du biharko Txistu Kontzertua; obra berriez aparte, hainbat moldaketa eskainiko dituzte

Durangoko biharko kontzertuan estreinatuko joko dituzte Karlos S. Ekizaren *Rhythm*, Jose Blascoren *Aires de Ribera*, Joaquin A. Lecumberriren *Ipar Haizeak* eta Ruper Lekueren *Rag* obrak. Gainera, hainbat obraren moldaketak ere izango dira entzungai, Landakoguneko hitzorduan.

Tolosako Hodei Truk abesbatzaren, Durangoko Kriskitin dantza taldearen eta Bilboko Tantai taldearen kolaborazioagaz jardungo dute Euskal Herriko hainbat txistularik, bihar, Landako Gunean. Silboberri elkarteak antolatu du zortzigarren Txistu Kontzertua. Bihar, 20:00etatik aurrera jardun-

go dute, eta emanaldirako sarre-ra doakoa izango da.

Jabier Ituarteren gidaritzapean jardungo dute txistulariek. Aitor Amilibia, Ortzi eta Sergio Torices, eta Iñaki Martinek joko dute txistua. Txistu doinuei laguntzen, tronpetak, bonbardinoa, tronboia, tuba, baxua, perkusioa edo teklatua ere izango dituzte, besteak beste. ■ I.E.

Jabier Ituarteren gidaritzapean jardungo dute txistulariek

LITERATURA >

Adin tarte zabalari begirako egitaraua osatu dute liburutegian

Herritarrak irakurketara hurre-ratzeko helburuagaz hainbat ekimen ipiniko dituzte urrian hasi eta abendura arte Elorrioko liburutegian martxan. Adibidez, hamazortzi urte arteko herritarrek irakurtzeko ohitura garatu dezaten, irakurketa lehiaketa ipini dute martxan.

Gutxienez liburu bi irakurri eta liburutegiko arduradunek prestatu dituzten fitxak bete beharko dituzte parte hartzera animatzen diren gazteek. Helduentzako zein umeentzako ipuin kontalaritza saioen eta irakurketa klubentzako hitzorduak ere zehaztu dituzte, dagoeneko, Elorrioko liburutegian. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jon Irazabal
Gerediagako kidea



Nafarro Nafarroa...

Nafarroaren okupazioaren 500. urteurrena betetzen dela eta hainbat eta hainbat berri irakurri izan dugu azken boladan komunikabideetan. Igarotako Nafarroa amesten batzuetan, gaur eguneko ikuspegi politikotik beste batzuetan... Eta gehienetan garai hartako errealitate politikotik kanpo idatzitakoak, bakoitzak txingarra bere urdaiazpikora eramanez. Garai hartan, jaunaren menpean eta eskubidegabe bizi ziren herritar soilei berdinduta zizaien nor eta nongoa zen erregea, zerga gutxi eskatzen zuena eta gerra askotan sartzen ez zena bakarrik nahi zuten. Erresuma euskalduna zela irakurri izan dut. *Linguanavarorum*-a herriak erabiltzen zuen, zeren eta erregeak eta bere gorteko jauntxoak baliteke euskaraz jakitea baina erromantzea zen euren hizkuntza. Euren garaian, 1545ean, argitaratu zuen Bernat Etxeparek euskaraz idatzitako lehen liburua, baina nola zen bizitza... Bernat... Gaztelarren sokakoa izan genuen. Nafarroako erregeak bai baina... Nafarra? XVI. mendean, denbora gehiago egiten zuten Frantzia eta abar Nafarroan baino. Dena dela gaira bueltatuz, ez dezagun pentsa 1512ko gerra gaztelauen gauza bat izan zenik, gure aurrerakoak ere nahaste-borraste horretan sartuak ibili baitziren.

Dokumentuetan ikusten dugu Durangaldeak Bizkaiko jaunaren (Gaztelako erregea) eskaria betetzeko 100 soldadu baleztari bidali zituela Nafarroa menperatzeko prestatutako armadara. 1512ko urriaren 25ean, igarotako egunean, 500 urte bete ziren: Martin Sanchez de Barraski Durangoko alkatea eta Martin de Arteaga Durango Merinaldeko tenientea buru zirelarik bildu ziren erabakitze nola ordaindu soldadu ohiekin zor zeukaten 1260 marabediak. Dirudienez ongi ordainduta joan ziren ze 1513an erabakitzen dute Durangaldeko alkateak gerrara joandako peoiei ez eskatzea itzultzea aurretik jasotako soldaten soberakinak. 1513ko urte horretan, urriaren 27an, Juana lehenak, Bizkaiko Andereak, agintzen du aipatutako Martin de Arteaga 30 eguneko epean Madrilgo Gorteko kartzelara eramatea gerra ondoren 'harrapatutako' gauza batzuk direla eta izandako delitu batzuegatik. Argi ikusten da gure inguruan ere gerra hark bere eragina eta partaidetza izan zuela, eta ez bakarrik Loiolako Ignazioaren istorioak eta kanpotar batzuen eraso basatia. Dirudienez oinaz eta ganboatarren herri honetan ez dago ia ezer berririk eguzki azpian.

ZINEMA >

'24 Ordu Digitalean', film laburren maratoia Elorrioren

Lehiaketaren zazpigarren edizioa azaroaren 2an abiatuko da, 17:00etan, eta hurrengo eguneko ordu berean amaitu

Film laburren lehiaketa da *24 Ordu Digitalean*, eta Elorrioko Arriolan, azaroaren 2an eta 3an da lehiaketaren aurtengo hitzordua. Zazpigarren edizioa da.

Azaroaren 2an, 17:00etan emango dizkiete antolatzaileek euren lanak egiteko gaiak parte-hartzaileei, eta egun bakarra izango dute euren lanak aurkezteko.

Zapatuan egingo dute lehiaketaren sari banaketa ekitaldia. Elorrioko Arrapaladan antzerki taldeak gidatuko du ekitaldi hori, eta bertan banatuko dituzte 700 euroko sari nagusia eta bi finalistentzako 500 euroko saria.

Parte hartu gura duena, 24ordu@arriolaka.com helbidean inskribatu behar da. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

URRIAK 26 20:30ean
URTEURREN EKITALDIA
PLATERUENAK 8 URTE. Ekitaldi irekia

URRIAK 27 19:00etan
KUKAI+AIKO+JOHN TILBURY
DANTZA IKUSKIZUNA. Sarrera: 10-12 euro.

AZAROAK 1 22:30ean
RIU (herrialde katalanak)
KONTZERTUA-DANTZA. Sarrera: 5-8 euro.

AZAROAK 2 21:30ean
THE CASUALTIES+ SECRET ARMY+ BAD CO.PROJET+DIRTY BROTHER. 12,5-15 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

PUBLIKOARI GORROTO
Artedrama Euskal Laborategia

Azaroak 11 • 19:00

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776



aisia LEKEITIO
H * * * *

Aisia Lekeitio Hotela

Santa Elena etorb, z/g

48280 Lekeitio

Tel.: 94 684 26 55

Fax: 94 624 35 00

lekeitio@aisiahoteles.com

lekeitiorestaurante@aisiahoteles.com

www.aisiahoteles.com



HAINBAT OPARI ZURE ESKU, EZTEI BANKETEA LEKEITIOKO AISIAN EGINEZ GERO, 2012KO URRITIK 2013KO OTSAILERA:

- Dj saioa bi orduz
- Eztei Gaurako Suite-a + "Jarri Eder" pakete termala
- Autobus bat, 55 lagunekoa, gonbidatuak garraiatzeko
- 2. afaria edo txokolate erretilukada
- Cava, brindiserako
- Lore apainketa pertsonalizatua, mahaietarako
- Menu pertsonalizatuak
- Argazki erreportajerako prezio bereziak + ezkontza gonbidapenak debalde



Gutxienez 50 pertsonako ezkontzak. Beste kopuru batzuetarako, baldintzak galdetu.

BI BONO GASTRONOMIKO ZOZKETAN AISIA LEKEITIO HOTELEAN

Durangaldeko zein herritan ospatuko dituzte Urriko jaiak asteburuan?

IRAILEKO IRABAZLEAK: Maitane Balenziaga eta Maria Jesus Zabala. ZORIONAK!

BIDALI ZURE ERANTZUNA:

astekaria@anboto.org-ra edo Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta helbidera



IRITZIA >

gutunak@anboto.org



PLATERUENAK ZORTZI URTE

Plateruena zabaldu genuela zortzi urte beteko dira asteburuan. Atzera begiratze-ko une egokia izan daiteke ziurrenik, baina aurrera begiratzeko abagune ezin hobea da, ez bairik barik. Orain hamar urte Berbaro elkarteak egitasmoa aurkeztu zuenean ameskeriatzat jo zitekeen. Amets bete-betea gaude beraz, baina ez lo, begiak zabalik eta bizi-bizirik baizik. Gurea bizifroga bat gehiago dela esan genezake, maldagora guztiak bazter utzita herri-ekimena bere bidea egiten ari den seinale.

Sorrera ezagutu genuenontzat zortzi urte ez dira gauza handia, baina hamazortzi urteko gaztearentzat bizitza osoa da, beti ezagutu baitu Plateruena zabalik. Herri bizitzan lekua egiteak baditu bere zailtasunak baina azkenerako Durangaldean "beti-betikoa" den espazioa izatea lortu dugu.

Erraza ez dela izan diogunean langintza neketsua dela esan guran gabiltza, konpromiso eta maitasun handia eskatzen duena. Horregatik, betetzen dugun urte bakoitza garaipena da guretzat, eremu berri bat geure egin dugun bizipenak hartzen gaitu eta ospatu beharra sentitzen dugu.

Plateruenerako parte hartzaile, laguntzaile, bazkide eta langileok zorionekoak gara, gutxienez urtegun bi dauzkagu-eta ospatzeko. Bata norberarena, bestea kolektiboa, plateru guztiona.

Aurten urriaren 26an izango da ospatzeko eguna, ostiralez, 20:30etatik aurrera. Gonbidatuta zaudete. Atzokoa, gaurkoa eta biharkoa aurkituko dituzu egun horretan: musika, dantza, poesia, irudiak, jan-edana eta lagunartea, euskaraz. Zer gehiago behar dugu gure urteguna ospatzeko?

Bertan elkar ikusiko dugulakoan, agur terdi.

PLATERUENA Kafe Antzokia

Sei hankako mahaia



Idoia
Agorria
PSE-EE


Ordenantzak betetzeko dira

Azken bi legegintzaldietan, hainbat aldiz eskatu dugu Durangon terrazak jartzeko prozedura arautu dadin. Behin eta berriz salatu dugu, utzikeria eta kudeaketa txarraren ondorioz, 2006. urtetik hona, hainbat arazo sortu zaiela auzokoei, eta udal-kutzak milaka euro jaso gabe geratu direla. Durango hazten ari den zerbitzu-hiri bat da, ostalaritza garrantzi handiko sektorea da bertan, eta, beraz, udalak behar bezala kudeatu beharko luke, eta horri dagozkie zergak jaso beharko lituzke.

Gaur egun, batez ere Tabakoaren Aurkako Legea indarrean sartu zenetik, ostalaritzako establezimendu gehienek mahaitxo hornitutako terrazak jartzen dituzte eguraldi ona egiten hasi orduko, eta urteko beste garai askotan ere bai. Ordenantzaren bidez, terrazek esparru juridiko egokia izango dute, haien instalazioa eta funtzionamendua argi eta garbi zehazteko. Era horretan, enpresaburuek zehatz jakingo dute zein baldintza bete behar duten beren terrazek, eta, adibidez, ez diete arazorik sortuko inguruan bizi diren herritarrei. Hornigarriak homogeneizatu, eta udalerrinari balio erantsia eman behar diogu.

Azkenik, aste honetan, terrazak jartzeko ordenantza onetsi dugu. Ordenantza hori behar-beharrezkoa da udalerrientzat, ostalarientzat, auzokoentzat, eta, era berean, zerbitzu-hiria denez, Durangok egunero jasotzen dituen bisitarientzat.

Hala, bada, eskaera egiten diegu ostalariei ordenantza eta irisgarritasunari buruzko legea bete dezaten, baina, bitartean, udalak berak, gobernu-taldeak, ez du betetzen. Horren adibide argia dugu Barrenkalean, udaletxeko ateetan. Bertan, udaltzaingoak bi plaza ditu aparkatzeko, fatxadari erantsita eta marraztuta, eta hor ez da uzten legeak zehazten duen bi metroko tartea. Kale horretan bertan, paperontzi batzuk fatxadei atxikita daude, eta horrek ez du betetzen irisgarritasunari buruzko legea. Zertarako dira, bada, ordenantzak?



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9,
48215 Iurreta -
astekaria@anboto.org.
Izen-abizenak, telefonoa, hel-
bidea eta NAN zenbakiagaz
batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak
kide baten izenean sinatuta eta
ANBOTOren irizpideak jarraituz
zuzenduta publikatuko dira.

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko urriaren 26a
10. urtea - 477 zk.

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretzi Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna,
Jone Alberdi.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onandia,
Amaia Ugalde, Ane Elordi.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.
Argazkilariak: Kepa Aginako,
Zaldua Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

@anbotokirola

KIROLAK >

Bidezabalek gerrikoa estutu du

Diru iturriak jaitsi direnez neurriak hartu dituzte; adibidez, gizonen ez diete soldatarik ordainduko



Bidezabalek ohiko gastuak ordaintzen jarraituko du (bidaiak, lizentziak...) baina ez du soldatarik ordainduko. Jon Iglesias

Zerumugan laino beltzak ikusten ditu Bidezabal atletismo taldeak eta ekaitza etorri aurretik euritakoa atera du. Datorren urterako aurrekontua asko jaitziko dela aurreikusi du zuzendaritzak eta neurriak hartu ditu: senior mailako gizonen ez diete soldatarik ordainduko. Gura duenak musu truk jarraitu beharko du.

Joan zen asteko martitzenean batu zen zuzendaritza batzordea. Atletismo klubak aurreikusten duen errealitate ekonomikora zelan birmoldatu izan zuten berba, besteak beste. Hasieratik argi izan zuten zeri eutsi behar zitzaion nahita nahi ez: emakumeen talde nagusiari eta gazteen mailetak

Datozen egunetan erabakiko dute atletek klubean jarraitu edo ez

taldeei. Beraz, erabakirik latzenak gizonen talde nagusiari eragiten dio. Orain arte, gehiago edo gutxiago, denek kobratu izan dute zerbait dirutan Bidezabalek aritzearren (200 eurotik 1.000 eurora gutxi gorabehera). Hemendik aurrera, klubak ez du soldatarik ordainduko. Atletek badute neurri horren berri eta

datozen egunetan erabakiko dute Bidezabalen jarraitu edo ez. Gizonen taldea 70 bat atletek osatzen dute eta erdiak inguru Durangaldetik kanpokoak dira. Klubean geratzen direnekin talde lehiakorra osatu daitekeela irizten badiote, Espainiako Lehenengo mailan parte hartzeko izena emango du klubak. Taldeari ez badiote maila nahikorik ikusten, baliteke Euskal Herri mailako txapelketan baino ez aritzea.

Laguntzak, erdira

Datorren urterako aurreikuspen ekonomikoak ez dira onak. Bizkaialde Fundazioetik jasoko duten kopurua ohikoa baino baxuagoa izango da. Horrez gainera, badakite atletismoko federazioei emaniko laguntza %50ean jaitziko dena eta,

“Proiektu osoa goitik behera eror daiteke; ezin gara arriskatu”

horrek, klubei ere zuzenean eragingo die. Zantzu beltz horien aurrean zuzentzeko jokatu behar izan dutela adierazi du Aitor Casal Bidezabaleko presidentek: “Orain arte moduan jarraitu eta laguntzak aurreikusi moduan jaisten badira, proiektu osoa goitik behera eror daiteke; ezin gara arriskatu”.

Emakumeei ere soldatak nabarmen jaitziko dizkiete, baina etorkizuna behinik behin bermaturik du. Neurri drastikoagoetara jo eta talde bat kentzea erabakiko balute, talde hori gizonena izango litzateke. Gaur egun, emakumeen taldea da klubeko zutarria, bai harrobiari dagokionez eta bai nagusietan. ■ J. D.

Urkiolako maratoni erdia egingo dute domekan

Urtero lege 21 eta 11 kilometroko ibilbide banatan lehiatuko dira, Santutegitik hasita

Domekan Urkiolako XXII. Maratoni Erdia jokatu dute Santutegitik hasita. Aurreko aldie-tan lege, ibilbide bi prestatu dituzte: 21 eta 11 kilometroko bana. Ibilbide luzeagoa 10:00etan hasiko da eta laburragoa 10:15ean.

Baso bideetatik zehar ibilbide gorabeheratsua prestatu dute, gorantz 502 metroko des-

nibel positiboa duena. Iazko aldian, Oier Ariznabarreta durangarra eta Iraia Garcia amorebita-etxanoarra izan ziren ibilbide luzeagoko irabazleak.

Sariei dagokionez, 21 kilometrokoa irabazten duenak 200 euro jasoko ditu; bigarren ailegatzen denak 150 euro, eta hirugarrenak 75 euro.

Bidezabal atletismo taldeko antolatzaileek jakinarazi dutenez, Internet bidez izena emateko arazo informatikoak egon dira asteen. Horregatik, eguneko bertako izen-ematea merketu egin dute. 30 euro beharrean, 20 euro izango da. ■ J. D.

Egunean bertako izen ematea merketu egin dute; 20 euro izango da



Iazko aldiko parte-hartzaile batzuk. Felix Sanchez

Alberdik eta Garalde irabazi dute Durangoko zesta txapelketa

Durangoko San Fausto Zesta Txapelketa Berriatuko Alberdik eta Garalde bikoteak irabazi du. Joan zen zapatuan jokatu-tako finalean 30-22 nagusitu zitzairen Beitiak eta Garitaonandiak osatutako bikoteari.

Mutriku herriagaz jokatu arren, Gotzon Garitaonandia durangarra da eta Beitiagaz batera iaz irabazitako txapela berritza zuen helburu. Partidu erdira arte lehia estua izan zen. Handik aurrera, Alberdik sasoiko dagoela erakutsi eta erabakigarria izango zen aldea hartu zuten berriatuarrek. *Garita* eta Beitia euren mailatik behera ibili ziren. ■ J. D.

Araiztegi zilarrezko domina lortu du Irlandan

Dublinen jokatu den munduko pilota txapelketan goi mailan aritu da Amaia Araiztegi; Itsaso Pradera, berriz, finalaurrekoetara heldu da



Amaia Araiztegi, zilarrezko domina jasotzen.

Aste honetan Dublinen (Irlanda) jokatu den Munduko One Wall Txapelketako nesken finalean, Amaia Araiztegi zilarrezko domina lortu zuen buruz buru, Martina McMachon irlandarraren aurka finala galduta. Bost partidu jokatu behar izan zituen Araiztegi finalera heldu aurretik. Finalaren hasiera nahiko parekatua izan zen arren, irlandarra hobeto aritu zen tantoak amaitzerako orduan.

Finalaurrekoetan, maila zoragarria erakutsi du hamabost urte besterik ez dituen mallabiarak. Lia Ching amerikarra menderatu zuen, galtzen hasi arren, bigarren setean eta tie-breakean irabazita.

Itsaso Pradera finalaurrekoaren atarian geratu da

Araiztegi gazteak adierazi duenez, ez zuen domina espero, nahiz eta lan ona egiteko esperantzazagaz joan. "Esperientzia polita izan da, talde batua sortu dugu euskal pilotariok. Batak bestea animatu dugu etengabe eta horrek asko lagundu digu".

Taldeka, euskal selekzioak laugarren postua lortu du Irlandan. Baina denetariko emaitzak lortu dituzte euskal pilotariak Dublinen. Binakako txapelketan

Araiztegi eta Pradera mallabiarrek bikotea osatu zuten paleta goman, eta txapelketa irabazteko faboritoek kanporatu zituzten. Gizonezkoetan bakarka, aldiz, Iker Gordon Munduko txapeladun izan da, finalean Mellow pilotari estatubatuarra menderatu odoren.

Bizkaiko Paleta txapelketa

Dublinetik bueltan, Araiztegi mallabiarrek Bizkaiko Paleta txapelketari ekin dio berriz ere. Sopela herria ordezkatu du txapelketa horretan, eta bertako Malen Lejonagoitia izango du bikotekide. Orain arte elkarrekin jokatu hiru partidua irabazi egon dituzte. ■ Ane Elordi

Asteburuan, Europako Mendietako Raidaren 11. edizioa egin zen Asturiasen, proba askotako kirol lehiaketa. Iñigo Lariz Mugarra Triatloi taldeko kideak Morcaiko taldeagaz parte hartu zuen txapelketan hirugarren sailkatu ostean podiumera igo zela lortu zuten elite mailan.

Urriaren 20 eta 21ean izan zen Raida. Lau probaz osatutako lehia izan zen zapatukoa: mendiko bizikletan, trekkingean, sakana jaitserian eta eskaladan aritu ziren. Domekan ere antzeko hainbat proba egin behar izan zituzten parte-hartzaileek eta Tirraiderako ere puntuagarriak izan ziren.

Larizen bigarren Raida izan da asteburukoa. Modalitate honetan hasiberria dela eta lortutako emaitzarekin oso pozik dagoela adierazi du korrikalariak. Hala ere, orientazioa hobetu behar duela esan du. ■ A.E.

Lariz korrikalaria hirugarren, Asturiasen

Europako Mendietan, bi egunez hainbat probako lehia aritu eta podiumera igo zen



Iñigo Lariz eskuinean, bere taldekideekin.

ADITUAREN TXOKOA

Garazi Boveda
Futbol jokalaria



Jatorrak

Urtero legez, maiatzaren bukaera heldu eta futbol denboraldia amaitzen denean talde guztietan hurrengo urtera begira jartzen gara: bakoitzak ze asmo duen eta taldean nork jarraitu nahi duen eta nork ez hitz egiten.

Gure kasuan, lurretako nesken taldean, azken urteetan taldea osatzeko arazoak eduki ditugu jende faltagatik: lanarekin bateraezintasunak direla, ikasketak direla, nekea, asteburuetan beste afizio batzuek disfrutatzeko gogoia...

Orduan hasten da jendea taldera etor dadin konbentzitzeko lana. Hasteko, berba politekin animatzen dugu taldea uzteko asmoa duen jendea: neska ezagun, esperientziadun eta jatorrak. Normalean, hala ere, jende faltan egoten garen, esparrua zabaldu behar izaten dugu, eta saiateren gara gureganatzen eskualde osoan noiz edo noiz futboleko jokatu dutenak eta berriro kirola egiteko gogoz daudenak: esperientziadunak eta jatorrak. Horrela, hamabost bat batzea lortzen dugu, gutxitxo taldea ateratzeko. Orduan, amua sare bihurtzen da, eta edozein momentu aprobetxatzen dugu jendeari alameda emateko Larrakora igo dadin: sare sozialetan ekitaldiak sortu, mezuak bidali lagunaren ezagunaren ezagunari, jaietan euforia momentuak aprobetxatuz, baiezkoa lortzen saiatu... Ordurako, eskakizunak minimoak dira: jatorrak izatea.

Azkenean, taldeak beti egin du aurrera, eta egin dezala, lurretako urte askoko tradizioa baitu nesken futboleko, eta pena izango litzateke urteren batean eten bat egon delako taldea desagertzea.

Gol festa eta gero, Alaves bisitatuko du Kulturalak

Gol zaparrada izugarria izan zen joan zen asteburukoa Tabira futbol zelaian, Hirugarren mailako partiduan. Durangoko Kulturala taldeak 7-1 irabazi zion Zamudio bisitariari. Herriko taldeak nagusitasuna erakutsi zuen zelaian hasierahasieratik eta bosgarren minuturako sartu zuen lehendabiziko gola Entzindok.

Haren ostean, beste hiru gol sartu zituen etxeko taldeak, eta markagailura lau goleko tarte eroan. Joseba Garcia, Entzindoko eta Casado izan ziren golegileak. Bigarren zatian Mallagariak bi gol sartu zituen eta Endemañok beste bat. Ondorioz, Kulturala sailkapenean bosgarren postuan dago, play-off postuetatik puntu batera.

Asteburu honetan Deportivo Alaves B bisitatuko du Kulturalak. Gasteizen izango da partidua, domeka goizean, 11:30ean.

Durangaldeko derbia

Elorriok eta lurretakok derbia jokatu zuten asteburuan Ohorezko mailan, eta hiruna amaitu zen partidua. Gol asko egon ziren, beraz, ordura arte lurretakok sei partidutan sei gol bakarrik sartu zituen arren. ■ A.E.

Agenda

FUTBOLA
OHOREZKO MAILA
Iurretako - Derio
Zapatuan, 17:00etan,
Larrakozelain
LEHENENGO ERREGIONALA
(gizonak)
Berriz - Ermua
Zapatuan, 17:00etan,
Berrizburun
Zaldia - Abadiño
Zapatuan, 17:00etan,
Solobarrian
LEHENENGO ERREGIONALA
(emakumeak)
Elorrio - Berrio-Otxoa B
Zapatuan, 16:00etan,
Eleizalden

ARETO FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Mallabia - Laskorain
Domekan, 17:00etan,
Zaldibarko udal kiroldegian
EUSKAL LIGA
Abadiño Lagun - Uxo
Domekan, 11:45ean,
Berrizko kiroldegian
MAILA GORENA
Presion Break -
Elorrietako Senses
Zapatuan, 17:15ean,
Berrizburun
LEHENENGO ERREGIONALA
Sapuberri -
Abadiño Gaztetxe
Zapatuan, 16:00etan,
Landako kiroldegian

PILOTA
OLAZAR TXAPELKETA
Lau t'erdian:
- Agirre - Ansotegi
Binaka:
- Ansotegi-Linzoain /
Elezkano I-Larunbe
Azaroak 1, 21:30ean,
Zaldibarko pilotalekuan

“Zure martxari eutsiko dion auto bat bilatuko dut.

Eta emandako hitza betetzen ez badut, behar izanez gero Australiaraino bultzatuko zaitut olatu handiaren bila.”

Andonik esana



**RENAULT GRAND SCÉNIC
DYNAMIQUE**
1.5 dCi 105CV
2010 Urtekoa

15.900€*

**RENAULT
OCASIÓN**

12/11/30-erarte edo izakinen amaierararte baliozko eskaintza. Irudiko modeloa Renault Grand Scenic Emotion da.

RENAULT recomienda elf



GAURSA ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO www.gaursaautoak.com
BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberri.com

AISIALDIA >

mendi ibilbideak



ANBOTO INGURATZEN

Durango M.T.B.



Anboto mendiaren bueltan, ibilbide gogor baina ederra

Urkiolako Parke Naturaletik barrena, Anboto mendi mitikoa inguratzeko aukera dago ibilbide honeguz. Bizikletaz, hiru ordutik gorakoa da.


Durangotik irtenda Abadiño-ko Mendiola auzora ailegatzeari izango da ibilbide hone-tako lehenengo egin beharra. Handik Sagastara segitu eta Atxarteko harrobitara joan behar da gero. Pol-Pol edo Asuntzera eroaten duen bidea ezkerretara utzi eta Txakur-zulo ingururantzako joko du ziklistak. Hortik Urkiola gainera igo, eta Pol-Polerako bidea hartu behar da gero. Anboto mendikatea ezkerretara edukita, Zabalandi izango da hurrengo geltokia. Zabalandiko zelaia hogeigarren kilometroagaz batera agertuko da. Hortik jaitsiera luzea hasiko da Betsaideraino. Handik zazpi kilometrora dago

mendia, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoaren erdigunean.

Betsaide leku ona da mokadutxoan jan eta atsedean apur bat hartzeko. Berritua ere bizikleta gainean jarri, eta Durangorako bidea hartuko du txirindulariak. Elorriaren beharrez, Atxondora jaitsiko da, norabide horretarako pista hartuta. Herrigunera helduta, BI-632 errepidea hartzea izango da azkeneko pausoa.

Anboto izango da bide honen erreferentzia, ibilbidearen erdigunean kokatuta dagoelako. Mendia inguratzen da, eta uneoro paisaje ederrak ikusteko aukera eskaintzen du bideak.

ZER IKUSI...



Zabalandi



Betsaide

DISTANTZIA

41,37 km

IRAUPENA

3 ordu 15 min

IGOERA METATUA

1.085 m

ZAILTASUNA

Oso gogorra





Auzo-Taxia martxan

Urriaren 15etik aurrera erabilgarri

NORI ZUZENDUTA

Berrizko herritarrentzat. Auzoetatik hirigunera joateko, hirigunetik auzoetara edo auzo batetik beste batera joateko.

ORDUTEGIA

Astelehenetik - Ostiralera: 7:30 - 21:00

Larunbatetan: 9:00 - 14:00

Igandeetan eta abuztuan ez da zerbitzurik emango.

PREZIOA 2,00€ bidaiko.

FUNTZIONAMENDUA

Zerbitzua telefono zenbaki honetara deituta eskatuko da: **620 022 800**.

ERABILTZAILE TXARTELA

Erabiltzaileak txartela eskatu beharko du udaletxean. Aurkeztu beharrekoa: argazki bat (NAN tamaina).

AGENDA >

> ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdiaren aurretik.



Urriaren 27an, 22:00etan,
Mallabiko jaietan

BIZARDUNAK

Labetik ateratzeko ia prest daukate Bizardunak nafarrek disko berria. *Ur ederra kirats infinituan* du izenburua, eta taldekideen ahotan, betiko estiloari jarraiki, gordina eta polemikoa izango da. Bizardunekin, lheskidek, Kokeinek, Governorsek eta Vendettak ere joko dute bihar, Mallabiko Urriko jaietan.

ANTZERKIA

BERRIZ

>> Urriaren 26an, Glu Glu taldearen **Arratoitxo pinpirina**, 18:00etan, kultur etxean.

ELORRIO

>> Urriaren 26an, Companhia do Chapitoren **Perro que muere no ladra**, 22:00etan, Arriolan.

>> Urriaren 28an, Glu Glu Producciones taldearen **Ahatetxo itxusia**, 17:00etan, Arriolan.

>> Urriaren 30ean, Spasmo taldearen **Show Park**, 11:00etan, Arriolan.

ZALDIBAR

>> Urriaren 27an, **Buah txabal**, 18:30ean, liburutegi zaharrean.

DANTZA

DURANGO

>> Urriaren 27an, **Kukai** eta **AIKO taldeak**, eta **Iñaki Salvador**, 19:30ean, Plateruenean.

ELORRIO

>> Azaroaren 2an, **Errimak oinetan**, 22:00etan, Arriolan.

EKITALDIA

DURANGO

>> Urriaren 26an, **urteurren jai**, 20:30ean, Plateruenean.

ERAKUSKETA

BERRIZ

>> Azaroaren 18ra arte, **Javier**

Gorosarriren margolanak, Kultur Etxean.

DURANGO

>> Urriaren 5etik 28ra, **Minutalariak, kale argazkilariak**, Arte eta Historia Museoa.

JAIK

MALLABIA

>> Urriaren 26an, **Umeentzako tailerrak**, 16:30ean, frontoian. **Txupinazoa eta enkartelada**, 18:00etan. **Elizpeko pilota txapelketaren finala**, 19:00etan. **Bertso poteoa**, 20:00etan, Beñat Ugartetxea eta Aitzol Barandiaranekin. **Oilasko dastatzea**, 21:30ean, plazan. **Damudot** eta **Bostenbor**, 22:30ean, plazan.

>> Urriaren 27an, **Frontenis txapelketaren final laurdenak**, 10:00etan. **Umeentzako olinpiadak**, 16:00etan, eskolako frontoian. **Frontenis txapelketaren finalurrekoa eta finala**, 17:30ean. **Igel-joku txapelketa**, 20:00etan. **Triki poteoa**, Mendotz eta Bizkairekin, 20:00etan, plazatik. **Kokein, lheskide, Governors, Vendetta** eta **Bizardunak**, 22:00etan.

>> Urriaren 28an, **Gaztetxoaren arteko pilota partiduak**, 12:00etan. **Mus, Tute eta briska**, 16:30ean, tabernetan. Javier Garitaonandia, Aitxu eta Jesus Gisasola eta Zelai **aizkolaria**, 18:00etan. **Ibon magoa**, 19:00etan, plazan. **Txokolatada**, ondoren, plazan.

KONTALARIA

BERRIZ

>> Urriaren 27an, **Lur Kortaren**

Ipuinekin jolasean saioa, 12:15ean, kultur etxean.

DURANGO

>> Urriaren 27an, **Maite Frankoren Isilka-misilka, isiltasunaren zaindaria** saioa, 12:00etan, udal liburutegian.

MUSIKA

DURANGO

>> Urriaren 27an, **Saskia Roures** organu jotzailearen hitzaldi kontzertua, 20:00etan, San Frantzisko monastegian.

>> Azaroaren 1ean, **Riu**, Herrialde Katalanetako dantzarako musika herrikoia, 20:30ean, Plateruena kafe antzokian.



Azaroaren 2an, 21:30ean, Durangoko Plateruenean

THE CASUALTIES

New York hiriko taldeak hardcore eta kaleko punk doinuak dakartza Durangoko Plateruenera. 90eko hamarkada hasieran sortu zuten The Casualties, eta *Resistance* diskoa aurkezten dabilta orain. Datorren barikuan joko dute kafe antzokian.

>> Azaroaren 2an, **The Casualties + Secret Army + Bad Co. project + Dirty Brother**, 21:30ean, Plateruenean.

TAILERRA

DURANGO

>> Azaroan, **Haur masaje ikastaroa**; **hiru eta zazpi urte bitarteko haurrentzako tailerra**; **Billings kontzepzio metodoa**; **Erditzeos-tea: zoru pelbikoa eta abdomena berreskuratu**; **Haurdunaldi eta erditze prestakuntza ikastaroak** **Ama Zulo kooperatiban**. Izenematea, 94.657.00.87 edo 688.860.845 telefono zenbakietan, amazulo.koop@gmail.com helbidean, edo Durangoko Barrenkale 18ko dendan.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Lo imposible

Zuzendariak: J.A. Bayona
barikua 26: 19:00
zapatua 27: 19:30
domeka 28: 18:30
astelehena 29: 19:00

El fraude

Zuzendariak: Nicholas Jarecki
barikua 26: 22:00
zapatua 27: 22:30
domeka 28: 21:30
astelehena 29: 22:00
martitzena 30
(ikuslearen eguna): 20:00

Umeen zinema

Frankenweenie 2D

Zuzendaria: Tim Burton
zapatua 27: 17:00
domeka 28: 16:30

Zineforuma

Blancanieves

Zuzendaria: Pablo Berger
eguna 1: 20:30

ELORRIO

Arriola

El irlandes

Zuzendaria: J.M. McDonagh
zapatua 27: 22:30
domeka 28: 20:00
astelehena 29: 20:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

Si de verdad

quieres

domeka 28: 20:00
astelehena 29: 20:00

Umeen zinema

Freddy igeldegi

domeka 28: 17:30



PLATERUENA

URRIAK 27/19:00etan Plateruenean
DANTZA IKUSKIZUNA

KUKAI DANTZA KONPAINIA


AIKO TALDEA

IÑAKI SALVADOR

Sarrera: (aurretik)10€/(takilan)12€

www.plateruena.net · www.plateruenasarrerak.eu

DENBORAPASAK

	Kilima	Goral	Garia jotzeko lekua
	Ez militar	Balu, eta guri ...	
	Sumendien gaia Arabako ibaia		
Lohia	Metal zurixka		
Pertsona	Zarauzko		
		Röntgen	
		Gantzuak	
*Irudiko ibaia			
Egurats		Infin., ukitu	
		Garrasi	
Oparo		Noren atzizkia	
Gure bandera		1	
Infin., ezarri		500	
Erdi, hitz elkarketan		Infusio mota	Ez eme
	Bururatua		
	Azkena eta lehena		
Joan den urtea		Eako	
Altuak		Bokala	
			●

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Eguazteneko 17:00ak arteko epea



Zorionak, **Gorka eta Mikel**, zuen 7. eta 3. urtebetetzean! Musu handi bat osaben partez!



Zorionak, **Hur eta Garazi**! Urriaren 24tik 25era, 1etik 10era. Musu potolo bana asko maite zaituzten familia danan partez!



Bidart Aldekoa-Otalora Salterainek urriaren 30ean 3 urte beteko ditu. Zorionak eta musu handi bat lehengusu, izeko-osaba, amama-aitent partez!

Gaur **Malenek** 3 urte betetzen ditu. Zorionak etxeko guztien partez eta ondo pasau merendolan!



Zorionak, **Saio**, astelehenean 4. dimentsioan sartuko zarenez, jaso besarkada eta musu bana koadrilaren partez, zorionak pottola!

Atzo, urriaren 25ean, **Asier Otaduiren** urtebetetzea izan zen. Zorionak familia osoaren partez!



Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 08 69
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

Zorionak, **Ibai**! Hamabostero zotz egiten dugun tarta zuk irabazi duzu. Txartela gura duzunean jaso dezakezu gure egoitzan.

SUDOKUAK

1

		2	3	9	5
6	9		4	7	
		7	8		1
8	4		1	7	6
	2				
		7	3	2	1
	8			5	9
2	5	7		3	
9	1	5	8	2	4

2

		6			9
					5
	4	7			3
9		4	8		
		1	3		6
8	5			4	
8		9	1		
1			6	2	8
2		8	3		

BOTIKAK >

- Barikua, 26**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
- Zapatua, 27**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)
09:00-13:30
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
- Domeka, 28**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
- Astelehena, 29**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Abxondo)
- Martitzena, 30**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
- Eguaztena, 31**
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
- Eguena, 1**
09:00-09:00
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak.....112**
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
- GARRAIOAK**
Euskotren902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia946 811 001
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....670 409 330
lurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690
- UDALAK**
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
- UDALZAINGOA**
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88
- EGURALDIA >** ☀️ ☁️ 🌧️ 🌩️ 🌨️
- 23° BARIKUA** 🌧️
23° ZAPATUA ☁️
24° DOMEKA ☁️
27° ASTELEHENA ☀️
28° MARTITZENA ☀️

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



Abadiño (Traña-Matiena) - Eguaztenetan
10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga 0,80 euro
Tomatea 3,50 euro/kg
Piperrak 1,70 euro/doz
Bainak 5 euro/kg
Kalabazina 1,80 euro/kg
Azenarioak 1,50 euro/tx
Arraultzak 3,60 euro
Idiazabal gazta 16,50 e/kg
Gari ogia 3,30 euro

SOLUZIOAK

6	1	5	3	8	5	1	6
4	2	6	7	8	3	1	4
7	3	8	1	4	5	6	2
5	6	2	4	7	3	2	1
1	7	2	6	6	4	5	3
3	8	4	2	5	1	7	6
2	5	3	7	8	6	1	4
8	4	7	1	2	6	3	9

7	2	6	4	8	5	9	2
5	1	2	8	3	7	6	4
4	8	3	2	2	1	5	6
8	3	5	6	7	1	4	2
6	5	9	6	7	1	4	2
2	4	7	8	1	3	6	5
3	8	3	4	2	8	7	3
1	5	4	7	2	6	9	8
5	1	3	4	7	2	5	6
3	7	2	6	5	8	4	1

•	K	V	I	V	R	V	G
R	A	E	•	Z	V	I	•
V	U	T	O	•	T	R	E
•	D	•	R	V	Z	E	•
V	N	I	R	R	U	K	I
N	E	•	O	R	V	N	•
I	K	U	•	O	R	I	G
V	U	G	V	D	V	K	•
R	•	I	K	V	Z	I	G
R	A	R	I	L	Z	•	Z
V	A	B	A	L	•		
L	L	I	B	I	Z		
•	B	•	K	•			

Juanito
Gallastegi
Abadea



Mugatuak... edo Jaungoiko

Gizaki guztiek, abere guztiek, izaki guztiek... Gauza batean egiten dogu bat: mugatuak izatean. Izaki guztiena, gauza guztiena, abere guztiena... Argi ikusten dogu. Baita gizaki guztiena ere. Inok ukatu ezina da gizakiok ere alde guztietatik garala mugatuak: gorputzez, osasunez, gogoz, jakituriaz, edozertarako trebetasunez, edozein eratako ahalmenez...

Ez dakit beste izaki guztiak, baina gizon-emakumeok behintzat, barruan daroagu mugak gaintzeko sena eta gogoia. Uste dot hori dogula gure bizitzaren eragilea. Gizakiago egiten gaitu lotzen gaituen mugak gaintzen ahalegintzeak. Baina, mugak eta mugak gaintu arren, beti izango gara mugatuak. Beraz, apaltasuna dagokigu. Horregaz jabetu behar dogu, lehenetik jabetuta ez bagagoz. Baina mugak gaintzen ahalegindu behar dogu beti, gizakiagoak izateko.

Baina, mugak gaintzen ahalegindu behar dogu beti, gizakiagoak izateko

Munduan eta gure bizitzan eta izatean dogun misteriorik handienetarikoa eta ilunenetarikoa gaitzaren izatea dogu, edo gaitza ezinbestekoa izatea. Zergatik mina, zergatik gaixoa, zergatik heriotzea... Zergatik gaitza?

Horren erantzun zuzenera hurreratzeko ahaleginean eta hurreratu guran, teologo batek baino gehiagok dinoe mugatuak garalako dala ezinbestekoa era batera edo bestera munduan eta guran gaitza izatea; Jaungoiko izango ginatekeela bestela, mugatuak ez bagina.

Aitortu egin behar doguz gure mugak, baina ahaleginak eta bost egin behar doguz ahal dan neurrian kentzen, gitxitzen eta gaintzen.

"Batzutan turkiar azentua kentzea kostatzen zait"

Telebistan Said da Eneko; argi dauka Goenkalen hasi aurretik Karrika antzerki taldeagaz egin dela aktore



Interneten Turkiako prentsurrekoak ikusten hango azentua landu zuen castingarako, eta Goenkalen orain Said ikasle turkiarra da Eneko Sagardoi. Goizeko zortziretarako platoan egon behar duenean Donostian egiten du lo. Unibertsitatean hasi berri, denerako astia hartzen duela dio. Gustura dabil, lan taldeko giro ederrean, eta telebistaren magia deskubritzen. Antzerkiko magia Karrika taldean maitemindu zen.

Goenkale jarraitu izan duzu?

Zelan ez ba! Nire etxean erlijio bat izan da. Nire adina dauka, 94an hasi zen, ni ere 94koa naiz eta, kontziente naizenetik, beti ikusi dugu etxean, batzuetan gehiago beste batzuetan gutxiago... Engantxatu eta desengantxatzeko denbora ematen du, hainbeste urtetan zehar... Baina bai, jarraitu egin izan dugu, eta nire ama eta amama baldintza bako zaleak dira.

Ez duzu orduan istorioan kokatzen ibili behar izan...

Guztiz kontrakoa. Desilusia eta dena hartu dut zenbat horma falta diren eta platoak ze txikiak diren ikusita...

Said deitzen dazure pertsonaia. Zelakoa da? Gustuko duzu?

Ikasle turkiar bat da eta aurten amaituko ditu zuzenbide ikasketak. Oso borrokalaria da, oso idealista; ez da hitzetan gelditzen, beti doa gauzen muturreraino, askotan ondorioetan asko pentsatu barik. Hori bada berekin komunean daukadan zerbait. Erabakiak hartzerakoan, nik proposamen bati beroan "bai" esaten diot. Saidek "bai" esan, eta egin egiten du. Nik "bai" esan, 36.000 buelta eman, eta gero hasten naiz egiten. Baina egiten dugunarekiko pasioa bai, biok daukagu. Gero, pertsona zabala

da, baina hurbileko erlazioetan kostatu egiten zaio pausotxo ematea.

Agian Turkiatik datorrelako izango da. Hori ere landu behar izango zenuen. Azentua, zelan landu duzu?

Nik izatez castinga beste papel batentzako egin nuen, Aimarrentzako, eta gero perfila ikusi eta deitu ninduten turkiarraren papela egiteko. Castingaren aurreko gauean, gidoia ikasten nabilela, konturatu nintzen: azentua! Interneten topatzen hasi, eta youtubeen Turkiako prentsurrekoak bilatu, eta z=s, s=z... horrela azentua egin eta ez didate ezer aldatu.

Kostatzen zaizu azentua jartzea?

Hasieran asko, eta tira, gero kostatzen zait kentzea ere bai, e? Zaila da sekuentzia luzeetan mantentzea. Noiz edo noiz ebakitzen dute; "Eneko, azentua!". Baina tira, beste toke teatral bat da pertsonaia-rena, eta asko gustatzen zait.

Kalean igarri duzu famarik?

Bai. Sanfaustoetan, Panda hartaz jantzi nintzen bigarren asteburuan, eta goizaldeko zazpiretan jendea ni seinalatzen hasi zen: "Goenkaaaale!". Txosnan turnoan egin nuenean ere jendea igarri nuen begira eta komentatzen. Hasieran ilusioa egiten zidan, baina orain...

Anaia bikia daukazu. Hark ere igartzen du fama?

Bai, banatu egiten ditugu! Esaten diot: zuk erantzun erdiak, eta nik beste erdiak. Berari ere eskatu nion baimena castingera joateko. Ez da munduko telenobela ezagunena ere, baina... Baietz esan zuen, ondorio guztiekin. Esan dit aprobetxatu egingo dela; tragoren bat hartu ahal badu gonbidatuta...

Karrikan zabilta azken urteotan.

2009 amaieran edo hasi nintzen, lehenengo atzeritarrekin egin genuen kultur arteko proiektu

batean, eta gero *Oinez dabilen jende eskasa* lanean. Orain *Lurra Astinduz* obrarekin gabiltza, bonbardaketari buruzkoa.

Noiztik antzerkizale?

Txikitatik. Egongelan beti egiten nituen antzerkitxoak, amamarenean ere bai. Asko gustatzen zitzaidan idatzi eta antzeztea. Amorrua ematen dit orain telebistan agertzen naizelako jendeak esatea: "Orain aktore zara, e?". Ni aktore izan naiz Karrikagaz eszenatoki- edo Durangoko plazara joan naizenean. Karrikari asko zor diot. Nahiago dut arinago beste pilo bat gauza uztea Karrika uztea baino. Behar dut Karrika. Sormen adierazpenerako askatasun uharte bat da. Hor alde handia dago, telebista askoz ere kontrolatuago da.

Unibertsitatean ere hasi zara. Denetarako astia edukitzen duzu?

Mondragon Unibertsitatean Ikusentzuko Komunikazioa egiten hasi naiz, eta bai, denbora bai. Filosofia da gauza gehiago badauzkazu, daukazu tarte libre hori gehiago aprobetxatuko duzula. Koordinatzaileagaz berba egin eta gauzak erraztuko zizkidatela esan zidan. Klaseak eta grabazioak goizez daukat eta astean egun bat, bi edo hiru galtzen ditut. Gogorra da, baina argi daukat ikasketa batzuk atera gura ditudala.

Ikusentzunezko alorrean, zine munduak mugitzen zaitu?

Gidoigintzara edo zuzendaritzara bideratu nahiko nuke. Gero edozer gauza gertatuko da, baina sormenagaz lotutako zeozer egin gurako nuke, gidoigintza, zinean, telebistan, edo erredakzio baten...

Eneko Sagardoi

18 urteko durangarra

Karrika antzerki taldean eta Goenkalen dabil aktore



**HARPIDETU ZAITEZ IRRIA ALDIZKARIRA
2012KO IRAILAREN 16 BITARTE ETA
OLGETANEKO IKUSKIZUN BONOIA
OPARITUKO DIZUGU**

Ebaki eta bidali edo eraman orri hau zure datuekin
helbide honetara: Barbaro Elkarte, Pinondo Plaza 1,
1go solairua, Durango KODEA: OLGETAN 12

IZENA:

ABIZENA:

E-POSTA:

TELEFONOA:

HERRIA:

